



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2018ko URTARRILA - 190. zenbakia

Dena prest Mungian Bertso Egunerako

Eguerdian eta arratsaldean izango dira ekitaldiak eta tartean hiru bertso bazkari egingo dira. Sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian.

Prest da guztia urtarrilaren 27rako. Bertso Egun ibiltariaren lehen edizioa egingo da Mungian eta hura antolatzeke Mungia Udalaren eta Taket Bertsozale Elkartearen laguntza izan du Bertsozale Elkarteak.

Eguna iritsi zain gaude; bazkarirako eta jaialdirako txartelak eskuragai daude www.bertsosarrerak.eus helbidean. Bazkaltzeko txartelak 20 euro balio du; jaialdikoa 10 eurotan izango dugu Bertsozale Elkartearen bazkideok, gazteek 8 eurotan eskuratu ahal izango dute eta 12 eurokoa da sarrera arrunta.

Kantuen letra sorkuntza eta bertso idatziak helduleku hartuta dator aurtengo Bertso Eguna. Lehen ekitaldia eguerdian izango da Torrebillera eraikin egurgunean. Alaia Martinen esanetara

musikari eta bertsoariaren arteko gogoeta egingo da.

Otorduen proposamena aldatu da gaur arteko Bertso Egunetik. Izan ere, zaleak hiru taldetan banatu dira egindako hautuaren arabera. Bertsozale guztiak herriko plazan bilduko gara eta Bertsozale Elkartearen eta Taket bertsozale Elkartearen lagunek lagunduko gaituzte elkarte bakoitzera. Bikote bana ariko da kantuan elkarte gastronomiko bakoitzean: Julio Soto eta Onintza Enbeita Ehiza eta Arrantza Elkartearen, Sustrai Colina eta Miren Amuriza Anaitasuna Elkartearen eta Igor Elortza eta Jone Uria Guri Zer elkartearen. Gogoratu, ez hasi dagokizuen elkartearen bila, errazena ordubetan plazara joatea izango da.

Arratsaldean, jaialdia

Jaialdian bost bertsoariaren parte hartuko dute: Sebastian Lizasok, Unai Iturriagak, Manex Agirrek, Oihana Bartrak eta Amets Arzallusek. Alaitz Rekondok jarriko dizkie gaiak. Artista gonbidatuak ere izango dira. Ez ditugu guztiak aurreratuko, baina bertan izango dira Patxo Telleria eta Mikel Martinez antzerkilariak eta Adrian Garcia de los Ojos musikaria.

Iluntzean ere festak izango du jarraipena nahi duenarentzat.



MAIALEN LUJANBIO ZUGASTI

Barakaldo, 2017-XII-17

Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapelduna

Doinua: Beste bateko inularretan

Herri hau herri egin al dugu?
Ze eman du bizikidetzak?
Zenbat eman du euskalduntzeak?
Ez behar beste guretzat.
Berrogei urte ta garaia da
egurasteko ametsak
akaso hortan bertsoariaren
ona da adibidetzat.
Beti ez du goitik behera egiten
transmisioaren trentzak
guk behetik gora ikasi dugu
ta zabaldu muga ertzak.
Lehengoeikin ta gaurkoengandik
txapel hau gerokoentzat!



Mungian egingo da urtarrilaren 27an Bertso Eguna.

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

Urtarrilaren 19an hasiko da Arabako Kuadrilla Arteko Txapelketa

320 parte-hartzaile izango ditu. Bertsogintza saretu eta indartzeko helburua du egitasmoak.

Larunbatean aurkeztu zen Gasteizen Arabako Kuadrilla Arteko Txapelketa eta aste honetan hasiko dira kanporaketak. 5. edizioa izango da, eta txapelketa formatua berreskuratuko da aurtengoan. Taldeka parte hartzen da, eta bi modalitatetan egiten da: bat-batekoan eta idatzizkoan.

Bat-batekoari dagokionez, 3-6 bertsolari aritzen dira kantuan, eta horiekin batera, gai-jartzailea, epailea, argazkilaria, grabatzaileak eta sukaldariak. Guztira 9-12 laguneko taldeak parte hartzen du. Talde hori antolatzailea ere izango da, bere herrian edo eskualdean saioak antolatzeaz arduratuko da eta. Aurten guztira, 59 lagun ariko dira bertsoan, 18 epaile lanetan, 16 lagun gai-jartzaile beharretan, eta bestelako funtzioetan gainerakoak. Hurrengo eskualdeek parte hartuko dute: Aiaraldea, Mendialdea, Arabar Errioxa, Lautada (bi talde), Gorbeialdea (lau talde) eta Gasteiz (bost talde).

Idatzizko modalitatea ere egongo da, eta horretan 16 taldek hartuko dute parte. Bertsoak prestatu, idatzi eta jende aurrean edo jendearekin batera kantatuko dituzte. Arabako zortzi kuadrilletako ordezkariak egongo dira: Aiaraldea, Mendialdea, Gorbeialdea (lau talde), Lautada (bi talde), Arabar Errioxa, Gasteiz (bost talde), Añana eta Trebiñu.

Bat-batekoa eta idatzizkoa kontuan hartuta, guztira, 320 parte-hartzaile ariko dira funtzio desberdinetan aurtengo Kuadrilla Artekoan.

Egutegia:

Kanporaketak (hamalau saio)

Urtarrilak 19, 20, 21: Gasteiz (hiru saio), Aramaio, Atauri
Urtarrilak 26, 27, 28: Oion, Agurain, Aramaio
Otsailak 2, 3, 4: Audio, Legutio, Gasteiz, Izarra, Zaldondo

Finalurrekoak (hiru saio)

Otsailak 17: Araia
Otsailak 24: Amurrio
Martxoak 3: Aramaio

Festa-finala

Martxoak 17: Gasteiz



Asteburuan hasiko da Arabako Kuadrilla Artekoa. //XDZ

Gonbidatu bereziak izan dituzte Ahots Baten sormen egonaldian

Hirugarrenez egin da egonaldia eta "esperientzia zoragarria" izan dela adierazi dute parte-hartzaileek.

Zestoako Sastarrain baserri eskola sormenaren topaleku bihurtu da Gabonetan, Ahots Baten Sormen egonaldiaren hirugarren edizioarekin. Urtean zehar antzerkia, bertsolaritza, kantua edota literatura lantzen dituzten gazteek sormen egonaldian ahozko adierazpide horiekin esperimendu eta ondo pasatzeko aukera izan dute, bidenabar, gazte sortzaileen arteko harreman sarea osatuz.

Egun bakoitzean adierazpide bat landu dute, eta gaien aditu eta aritu direnak joan dira bisitan. Antzerkia lantzeko Eneko Sagardoy aktorea, bertsolaritza egunean Miren Artetxe eta Unai Agirre, kantua lantzeko Ines Osinaga musikari eta abeslaria eta literatura lantzeko Eider Rodriguez idazlea izan dira Sastarrainen.

Mintzola Ahozko Lantegiak antolatzen ditu sormen egonaldiak Ikastolen Elkartarekin, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartarekin, Euskal Kantuzaleen Elkartarekin eta ipuingintzan aditu direnekin lankidetzan.

Aurreko urteetan bezala, "esperientzia zoragarria" izan dela adierazi dute parte-hartzaileek.



Sormen egonaldian egon diren gazteak, begiraleak eta gonbidatuak //XDZ

Bertsolariak eta euskal ikertzaileak, Renoko jardunaldietan

Renoko Euskal Ikerguneak eta Mintzolak antolatutako jardunaldiak dira eta urtarrilaren 29tik otsailaren 3ra egingo dira .



Oihana Iguaran eta Miren Artetxe bertsolari eta ikertzaileek hartuko dute parte, besteak beste. //XDZ

Bertsolaritza eta emakumea, marjinazioa eta ahalduzkoa izeneko jardunaldiak antolatu ditu Renoko Euskal Ikerguneak (REI) Mintzolaren laguntzarekin, Elkon (Nevada, AEB). Jardunaldiak urtarrilaren 29tik otsailaren 3ra bitartean egingo dira, eta bertako bertsolari eta ikerlariak hartuko dute parte: Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Jone Miren Hernandez eta Miren Artetxe.

Jardunaldiak apailatzeko ideia 2016ko uztailean sortu zen, Mintzolak antolatutako Europa bat-batean kultura arteko topaketan. Europa bat-batean topaketan eman ziren hainbat hitzaldi argitaratzeko aukera landu eta zertu zuten gainera Xabier Irujok, REIko zuzendaria, eta Mintzolako ordezkariak, eta ongi bidean 2018an zehar argitaratuko ditu REIk. Hori gutxi balitz, aurtengo Elkoko jardunaldietan aurkeztutako hitzaldiak ere Nevadako Unibertsitateak argitaratuko ditu.

Aurrerantzean auzolanean segitzeko asmoa dugu REIk eta Mintzolak, nola kantu inprobisatuaren Kulturartea Maparen egitasmoan hala kantu inprobisatuari buruzko jardunaldi edota argitalpenen sustapenean.

Ohiko formatuan itzuli da Hitzetik Hortzera

Txapelketa Nagusiko bertso onenak eskaini ditugu orain arte Hitzetik Hortzeran. Hemendik aurrera, plazaz plaza ibiliko gara bertsoak biltzen eta aurreko denboraldian bezala, gonbidatu bat ekarriko dugu atal bakoitzeko, igandero 15:00etan ETB1en.

Baigorri, Segura, Leitza, Zalla, Zumaia, Tolosa, Bastida, Irun, Maule, Durango, Amurrio, Donibane Lohizune, Iruñea eta Barakaldo; horiek izan dira denboraldi honetako orain arteko Hitzetik Hortzeraren plazak. Txapelketa Nagusiko bertso onenak eskaini ditugu igandero.

Txapelketa atzean utzita, saioa leheneratu, eta hemendik aurrera ere plazaz plaza jarraituko dugu bertsolarien lana jasotzen eta ale onenak Hitzetik Hortzerara ekartzen. Horrez gain, aurreko denboraldian bezala, gonbidatu bat izango du programa bakoitzak: kirolariak, idazleak, aurkezleak, bertsolariak.... diziplina ezberdinetako lagunekin egongo gara, eta beraien jardunaz eta bertsolaritzarekin duten harremanaz galdetuko diegu.

Apirilaren 1ean azken atala

Hitzetik Hortzeraren 13 atal eskaini ditugu orain arte eta urtarrilaren 7an hasita beste 13 izango ditugu, apirilaren 1era arte. Hitzetik Hortzera, igandero 15:00etan ETB1en



Hitzetik Hortzera igandero, 15:00etan, ETB1en.//XDZ



Puntua jarrita

ESTITXU FERNANDEZ MARITXALAR

Ze poza, Egoitz, puntua zuk paratzeak! Garai bateko zenbait jenderekin topo egin dut azken aldian, tartean zurekin, eta oroitzapenak samaldan datozkit. Donibane Lohizuneko saioaren ondotik Sarriegirekin egon nintzen poxi bat eta bere aitak gidatzen zuen kotxean ikusi nuen nire burua, konfort-gunetik kanpo egin nuen lehenbiziko saioetako batera bidean. Algortara gurasoek eraman ninduten, 17 urte bete berri, eta bertso gintzaren historiako isilunerik luzeena izanen da Igorrekin ofizioki egin nuena. Saibururen birbiloba naiz baina ezin Txirritaren ahotik kantatu! Entzuleak zain, isil-isilik, deseroso denak. Uste nuen minutu haiek nire garunean eta urdaileko ahoan bertzerik ez zirela bizi, eta halaxe desio, baina ez. Durangarren txofer-lanak egin zituen oroitzen da, orain guti kontatu dit. Nonbait ez zen niretzat bakarrik izan traumatikoa. Nafarroa Oinez egunean Iñaki Muruarekin izan nintzen Lesakan, elkarrekin kantatu genuen Itsasuko bertso-afariak oroitu nintzen. Nire burua ez dut sekula bertso larizat hartu, lotsatu egiten nintzen hala deitzen zidatelarik. Kotxetik ateratzerako berriz ere tiki sentitu arren, Itsasutik bueltan bertso larri bat nintzen bolantean. Baita Gaztelurrutiarekin 97ko Txapelketa Nagusian Gaiarren egindako 8ko handiko ofizioan ere, zenbait segundoz! Eurek akaso ez dira oroituko, baina ni bai. Leitzan Nahikari Gabilondorekin, Maia eta Altxuartekin Txantrean, Ametsekin Xalto Sarian, Sarasua eta Iturriagarekin Sestaon, Zaldibian Ainhoa Agirreazaldegi eta Amaia Agirrerekin, Egaña eta Lizasorekin Tolosan, Maddalen eta Iratxerekin Beran, Manolo, Bittor, Silveira, Makuko eta Estitxu Arozenarekin non-nahi... eta gehiago.

Eta nire mingaina ez zen sekula aldatu txapelketa edo plaza izan, etortzen zitzaidan lehenengoa botatzen nahiko lan batzuetan! Eta entzule-belarriak ere ez zaizkit kanbiatzen, molde eta genero bakoitzera egokitze ahalmena dute. Zuk bezalaxe, bertsoak eta bertso-esparru guztiak maite ditut nik, Egoitz, udazken honetan berdin-berdin gozatu dut Lesakako gaztainajatean Maddalen eta Unairekin, zein txapelketako saioetan, eta urtea bikain bukatu dut Bortzirietako Txapelketako finala aditzen. Zu ere han zinen Eneko, ni gin-tonika eskuan, zu kantuan. Paperak trukatu ditugu, anaiatxo...

Koplak

Bizkaiko bertso barnetegia egingo da otsailean

Urteroko legez, bertso barnetegia antolatu dugu Bizkaiko Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak, elkarlanean. Aurtengoa otsailaren 16tik 18ra izango da, Lurraska aterpetxean, Ajangiz. Izen ematea zabalik dago urtarilaren 25era arte. Horretarako bizkaia.administrazioa@bertsozale.eus helbidera idatzi edo 94 6812711 telefonora deitu behar da.

Poto-Finixa



Bertso-marmitakoa, Txorienen

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Gipuzkoako Eskolartekoan izena emateko epea, zabalik

Abenduan zabaldu zen Gipuzkoako Eskolartekoan izena emateko epea, eta urtarilaren 19ra arte egingo da zabalik. Gazteek idatzizkoan eta bat-batekoan eman ahal izango dute izena. Eskolartekoa otsailean hasiko da. Izen-ematea amaitutakoan zehaztuko da saio kopurua.

**BERRIAK
JAIO
GINEN**

JON MAIA SORIA

**LIBURU
BERRIA!**

Liburua erosteko eta informazio gehiago jasotzeko:

Lanku
www.lanku.eus
943 26 07 55

PUBLIZITATEA